

Zu zeu izan zaitez

Alaia Flamarique Jorri

Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak 1. saria

Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola

Kaixo, Niko naiz. Urte honetan ikastola berri batera joan naiz. Nire kide berriek nitaz pentsatuko zutena asko urduritzen ninduen. Beraiek egunero futbolera jolasten zuten, handiak izatean Messi edo Cristiano bezalakoak izan nahi zuten, baina ni ez. Ni ez nintzen besteak bezalakoak, ni ezberdina nintzen, ez nuen berdin pentsatzen. Neure buruari etengabe galdetzen nion: "Zergatik denak futbolaren arabera biratu behar du? Beste gauza asko daude munduan egiteko: irakurri, lagunekin atera, mendira joan ..."

Egunero telebista piztean futbola da agertzen den lehenengo gauza eta horrek izorratzen ninduen. Horregatik egun batean pentsatzen nuena esan nien nire kideei, baina inoiz izan dudan ideiarik txarrena izan zen. Hortik aurrera baztertuta utzi ninduten, hitz egiten nienean ez zidaten kasu izpirik ere egiten baina ni ez nintzen kezkatzen, ez nien ezer esaten, isilik geratzen nintzen eta egunak pasatzen uzten nituen. Beraiek berdin jarraitu zuten. Aurrerago edozein arrazoi bilatzen zuten nitaz barre egiteko: nire janzkera, nire hitz egiteko forma ... Egoera ezin nuen gehiago jasan, eta negarrez hasi nintzen, egunak eman nituen nire logelan itxita, buruari galderak egiten ...

Behin, patrioko ordu batean, ohikoa zenez, bakarrik nengoen, aspertuta besteengandik baztertuta. Banku batean eseri nintzen eta ideia bat izan nuen: biharko patrioko orduan mutil guztiei beste joko batera jolasteko proposatuko zien. Baina hori ez zen nahi nuen bezala atera. Zelaiaren erdian jarri nintzen, denak futboleko baloira begira zeuden, nire aurretik pasatzen ziren eta egongo ez banintz bezala aritu ziren: ez ninduten begiratzen, ez zidaten hitz egiten. Norbait ikusi nuen niregana hurbiltzen eta bera entzungo ninduela pentsatu nuenean, hauxe esan zidan:

— Kendu hemendik tontolapiko! Ez al duzu ikusten jolasten ari gabela?

Hau esan ondoren beste mutil bat agertu zen, haserre aurpegiarekin. Zelaitik kanpo bultzatu ninduen eta gehiago ez molestatzeko esan zidan. Ezin nuen sinetsi, ezer gertatu ez balitz bezala egin zuten denok, ni haserre bizian joan nintzen aurpegia gorri-gorria nuelarik. Lotsatuta nengoen eta ideia berri bat garatzen hasi nintzen.

Hurrengo egunean, gelan, patiora atera baino bi minutu lehenago nota bat pasa nien denei irakaslea konturatu gabe. Nota horrek hau zion: "patrioko orduan, frontoian, poliziak eta lapurrak jokora jolasteko, PASATU". Bi minutu geroago korrika batean abiatu nintzen frontoira norbait agertzearen zain, baina ez zen inor agertu. Ez nuen ezer ulertzen, zein zen egoeraren zergatia?

Gelara ailegatzean, Asierren kutxatilan paper zimurtu bat ikusi nuen eta nik idatzitakoa zela suposatu nuen. Aldi honetan ez nintzen haserretu, banekien zer atera zen gaizki eta zein zen konponbidea.

Beste egun batean nota hau idatzi nuen: “patioko orduan, frontoian, poliziak eta lapurrak jokoan aritzeko, pasatu mesedez; ASIER! ! ! ez gorde nota kutxatilan”. Egun hartan gertatuko zena ez nuen espero. Gelatik atera eta eskaileretatik korrika joaten nintzen bitartean, hau entzun nuen: “Jajajaja, badoa berriro frontoira gu agertzearen zain, ez dakit noiz ikasiko duen, duela egun batzuk berdina gertatu zitzaion. Ez zen inor agertu! Jajajaja”.

Hori entzutean estatua bat bezala, mugitu ezinik gelditu nintzen, eskaileren erdi-erdian, guztiz harrিতuta. Tuntuna banintz bezala sentitzen nintzen. Hitz horiek esan zituztenok nire aurretik pasatu zirenean, agurtzea izan zen egin nuen bakarra. Ondoren, ez nintzen frontoira joan, beti bezala besteak nola elkarrekin jolasten ziren ikustera eseri nintzen banku batean. Inork ez zidan galdetzen ea beraiekin jolastu nahi nuen edo zer moduz atera zitzaidan atzoko azterketa, beraien artean egiten zuten bezala. Ez nekien zergatik, nire sudurrarengatik, nire barre egiteko moduarengatik ... Batzuetan nire itxura aldatzen saiatzen nintzen, baina banekien horrek ez zuela baliorik izango. Horregatik futbola gure bizitzetatik desagertzeko ideiak pentsatzen jarraitu beharrean, nire bizitzara egokitzen saiatu nintzen. Nire kideak nire lagunak ez zirela futbola gorroto nuelako pentsatzen nuen eta arrazoi horrengatik iritziz aldatu nuen. Beste edozein kirol bezala ikusten saiatu nintzen, etxean nire aitarekin eseri eta Osasunaren partiduak ikusi nituen ...

Aurrerago egingo nuenagatik asko damutu naiz, kirol honi buruz asko nekiela pentsatu nuenean futbolera jolastu nuen eta nik espero nuena baino askoz zailagoa izan zen. Ez nekien nire aurkako jokalaria oso onak ziren ala ni oso txarra. Baloiak nire ondotik pasatzen ziren baina nire oinek ez zuten erantzuten. Nola jokatzeko nuen ikusi zutenean, beraiekin jolastea debekatu zidaten baina patioa zaintzen ari zen irakaslea hortaz konturatu zen eta horregatik ezin izan zuten ezer egin eta irakasleak esandakoa bete behar izan zuten, hori bai, taldeak egitean beti azkena aukeratzen ninduten. Gauzak berdin jarraitzen zutela konturatu nintzen eta, ez nekien zer egin, ez nekien zein zen aukera egokia: beraien lagunak taldean sartzen saiatzea ala berriro amore ematea.

Berriro amore ematea aukeratu nuen. Nire garunak ezin zuen gehiago, ez zitzaidan ezer bururatzen, ez nuen ideia onik. Ez nekien zer egin nezakeen.

Ni ez nintzen pertsona gaiztoa, baina beraiek horrela ikusten ninduten eta hori aldatzea oso zaila zen, ez nuen ikasturte osoa horrela izatea nahi. Batzuetan nire burutik neskekin joatea pasatzen zitzaidan, baina beraiek “bitxia” nintzela entzun zutenean, nitaz barre egin zuten, zirikatzen ninduten eta egia ez ziren gauzak asmatu eta beraien aurretik pasatzen zen jende guztiari esaten zizkioten. Inork ez zuen nirekin egon nahi eta erabaki bat hartu nuen: ikastola utzi eta eskola berri batera joan. Han nire akatsak kontuan izanda, berriro ez nituen errepikatuko eta hasieratik lagunak egingo nituen.

Erabakia hartuta neukan, nire gurasoek irakasleekin hitz egin zuten eta ni nahi nuenean joan ninteke. Egun hori bihar izango zen eta beti bezala hasi zen: etxetik ateratzean, nire amak muxu handi bat eman zidan, kalean nire adineko umeak talde batean ikusi nituen nire ondotik pasatzen, eta beti bezala ez ninduten agurtu. Ikastolara heltzean, segituan gelara abiatu nintzen. Egunero bezala, inork ez zidan aurpegira begiratzen baina zuzendariarekin topo egin nuen eta berak hauxe esan zidan:

—Niko! Jakin behar zenuke irakasle guztiak zure erabakiarekin ados gaudela, ez zaitugula ahaztuko eta zure falta sentituko dugula.

Hori entzutean barrutik negar egiten hasi nintzen, baina ez nuen asko entretenitu nahi eta nire bideari ekin nion. Gelan nengoelarik, klasea hasi zen, irakaslea mateko liburuak ateratzeko esan baino lehenago fin seinalatu eta arbelera joateko agindu zidan. Nik obeditu eta hauxe esan nien nire kideei:

—Lagunak —denak barrez hasi ziren— etorri nintzen egunetik baztertuta utzi ninduzuen. Ni etxera heltzean negarrez hasten nintzen baina zuek ez zenekiten, berdin zitzaizuen, egunero zirikatzen ninduzuen eta ezin dut gehiago. Horregatik atzo erabaki gogorra hartu nuen, beste ikastola batera noa. —Hori esatean denak harriturik utzi nituen, ez zuten hori espero. Hitz egiten segitu nuen.— Zuek ez nauzue naizen bezala ezagutzen, ni oso sentikorra naiz eta hori egiaztatzeke, nola ikusten zaituztedan erakutsiko dizuet, bakoitzari buruz egia den gauza positibo bat esango dizuet.

Azken lerrotik hasi eta lehenengoan bukatu nuen. Nire barrutik atera ziren gauzak esan nituen, nik benetan sentitzen nuena adierazi nien. Bukatzean denak negarrez hasi ziren denbora luze batez. Bikain sentitzen nintzen egin nuenagatik. Orduan estimatzen nindutela eta maite nindutela konturatu nintzen. Denak nigana hurbildu ziren eta besarkada handi bat eman zidaten.

Kaixo, Niko dut izena eta eskolan ondo sentitzen naiz.